

EKAITZA

*Egun berriko argi lanbruak diztatu dun garayan
Arrantzalien ontzi erbala irten da arraya nayan,
Ancheta beziñ lirañ dijua ichasoko ur-zelayan,
Elurra baño Zuriyagoko bela jasorik agayan,
Egunoroko ogi zatiya azalduko bada mayan,*

*Ichas-barrutik datorrelarik aize-bolara biguna
Eta osgarbi azaltzen dala zeruko urdintasuna
Eguzkiyaren musu gorriyak jaiki-azi du eguna
Irargiturik baga tarteko afarren irri leguna
Arrai segastak jolaserako nai izaten dun laguna.*

*Zeru urdin ta ichaso onak pozten dute mariñela
Bai eta ere ipar goorriyak, ezpada ere epela;
Bota orduko sare erkiña arrayez bete dubela,
Emaztea ta ume maiteak biyotzean ditubela
Malko bero bat isuri zayo, pozezko garra bezela.*

*Malko-sukarrak dunez batera bere matralla kiskali
Otoi zintzo bat zeru aldera ordañetan du bidali,
Andikan laster orei goibelak ortza dulako estali
Eta eguzki musu-goorriyak argi-garrunak itzali
Bira eginta portu aldera abiyatzen itzuli.*

Garai berean aize biguna goyante biurtu zayo
 Eta chalupa irauli nairik chistuka ondoren darrayo,
 Utsunetikan itzultzen dira milla truiñ ta arrayo
 Dirudiyala inpermutarrak dabiltzala su karrayo,
 Arrantzaliak arraunketari kemen guziya damayo.

Begira nola chorabiyaka dabillen ontzi ergela
 Neguko enbatak aideratzen dun orbel igarra bezela,
 Ichasoari lenaz gañera aunditu zayo sabela
 Eta aizeak malko jariyo jarri du orei goibela
 ¡Errukarriya, bat baldin bada, chalupako mariñela!

Gero ametsa banatzen danez baretu da ichasua
 Arkaitz tartean ito danean mendebalaren chistua
 Soñeko beltzak arrakatuta osgarbitu da zerua
 Baña ichaso-zelayan ez da ageri chalupachua
 Baizikan bere sayetz ausiyak eta bela urratua.

Agur egiñaz arrantzaliak laga zitun umechuak
 Beren onduan ez dutelako, biziro minberatuak:
 ¿Nun da aitacho? galdetzen dute eta alargun gajuak
 Erantzuten du, chukatu ezinik darizkan malko beruak
 «Beragatikan otoi dezagun, nere umezurtz gañuak».

JOSÉ ELIZONDO

